

Gaur hautagaiak, etzi sariak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Atzo esan dit lagun batek: "Iraila joan zaigu, berehala ordu aldaketa, eta horrekin batera jada Gabonetan sartzen gara". Ez ditut denbora salto azkarregi horiek atsegin. Etzikoan ere pixka bat pentsatzen duten horietakoa naiz, baina unean unekoa eta tokian tokikoa bizitzen ahalegintzen naiz. Urte amaieran kokatu nauen kidearen komentarioak, ordea, nahigabeen eraman dit burua Argia Sarietara. Gainean ditugu.

Ez dago ARGIAko lantaldekoa izan beharrik sarituen proposamenak egiteko. Azken urteetan irekia da prozesuaren fase hori eta oraintxe da garaia. Urrian zehar jaso nahi dira Argia Jendearen proposamenak. Euskarazko kazetaritzan eta komunikazioan nabarmentzen diren lanak saritzen dira urtero, eta ez dira gutxi irizpide horren barruan saritzeko egokiak izan daitezkeen proiektuak edo pertsonak. Geroz eta begi gehiagok begiratu, orduan eta aukera gehiago egongo dira mahai gainean. ARGIAko lantaldean ere botatzen dira kandidatuetan, baina kanpotik iritsitakoak ere oso kontuan hartzen dira hautaketa prozesuan. Batek baino gehiagok proposamen bera bidaltzea ere seinale izaten da. Batzuetan ezagutu gabeko proiektuak ere jaso izan dituzte, edo bururatu gabeak, eta sorpresa onak izaten dira.

Bost sari izaten dira urtero: ikus-entzunezko saria, kanpaina onenarena, irratia, internet eta prentsa saria. Seiga-



2020ko Argia Sarietako familia argazkia. Pandemia baino lehen elkartzeko izan genuen azken aukera.

rren bat ere ematen da tarteka, merezimenduzkoa. Hau ibilbide luzeko proiektu edo pertsona bati ematen zaio.

Proposamenak egin daitezke sei sari horietarako eta egin daiteke telefonoz 943 371545 telefonora deituta edo emailez, argiasariak@argia.eus helbidera idatzita. Bi kasutan, eskertuko da proposamenaren zergatia azaltzea, saria ematearen motiboa.

Azken edizioa ezin izan da, pandemia dela eta, aurrez aurre egin eta datorrena

nola egingo den oraindik ezin jakin. 33. edizioa erakundeetako, gizarte eragileetako eta Argia Jendearekin Usurbilgo Atxegan ospatzeko moduan izango gara? Formatua zein izango den erabaki gabe badago ere, sariak banatuko dira.

Ez hartu aurre denborari, berak eramango gaitu bere erritmoan. Lehendabizi sarituak aukeratuko ditugu. Garaiurrak non eta nola banatuko diren denborak erakutsiko du. ●



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa 2021

IZABA

Urriak 2, larunbata. 17:30ean, Zinemán
Julen Zelaia Iriarte, Eneko Fernandez Maritxalar,
Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graciarena,
Aitor Irastortza Arrizurieta eta Idoia Granizo Uribarrena
Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

TAFALLA

Urriak 9, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean
Eneko Lazkoz Martínez, Saioa Alkaiza Guallar,
Alazne Untxalo Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi,
Erika Lagoma Pombar eta Urko Gartzia Aleman
Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai
www.bertsozale.eus

ZANGOZA

Urriak 10, igandea. 17:30ean, Karmengo Auditorioan
Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol,
Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria,
Mikel Lasarte Cia eta Oier Lakuntza Irigoien
Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"

DONEZTEBE

Urriak 16, larunbata. 17:30ean, Zinemán
Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri,
Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ekain Alegre Gil, Egoitz
Gorosterrazu Elizagoien eta Sahats Aleman Sadaba
Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

Antolatzailea



Laguntzailea

